GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena

Guggenheim Bilbao Museoak 2021eko otsailaren 19an aurkeztuko du

Alex Reynolds:
Bada lege bat, esku bat, abesti bat

GUGGENHEIM BILBAO

Alex Reynolds. Bada lege bat, esku bat, abesti bat

- Datak: otsailak 19–ekainak 13, 2021
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2021eko otsailaren 19tik ekainaren 13ra, Guggenheim Bilbao Museoak *Alex Reynolds. Bada lege bat, esku bat, abesti bat* aurkezten du; 2021eko aurreneko erakusketa Film & Video aretoan. Museoak areto honetan erakusten ditu bideo-artean, zine-instalazioan, eta mugimendudun irudia jorratzen duten hizkuntza artistikoetan funtsezkoak diren piezak.

Oraingoan, Alex Reynoldsen (Bilbo, 1978) azkenaldiko hiru obra erakusten dira bertan. Artista ezaguna da gure harreman- eta maitasun-moduak etengabe ikertzeagatik, bereziki hizkuntza zinematografikoaren bitartez. Film & Video aretoko galeria nagusian *Eskua kantari* (2021) obra dago ikusgai, Guggenheim Bilbao Museoak koproduzitua; piezaren nazioarteko estreinaldia izango da erakusketa honen barruan.

Eskua kantari Alma Södeberg koreografo suediarrarekin lankidetzan sortu eta gauzatu du Reynoldsek. Piezak sare bat eraikitzen du, denboran elkar lotutako keinuz, ahotsez eta irudiz osatua. Elementu horiek elkarri erantzuten diotela dirudi, mimetikoki, sekuentzia irekiei eta elkarren segidako erreakzioei jarraituta: Extremadurako kortxoaren uztaldian artelatz-azalaren erauzketa ia erritualetik, su txiki baten aurrean laranja bat zuritzeko ekintzara, edo norbaiten eskua garbitzeko ekintzara; hostoen dardaratik ahots baten dardarara, urrunean txori baten hegoen astinaldia tartean dela, edo, bestela, interpretearen kantaren eta eskuen mugimenduen artean ezartzen den atzeraelikatzearen errepikapena. Teilatuaren gainean, trukatu egiten dira hitzak gaztelaniaz eta ingelesez, Bruselako horizontean Justizia Jauregia antzematen dugun bitartean. *Eskua kantari* obra askea da eta, aldi berean, xehetasun handiz konposatua, eta bertan, finkotasunarekiko erresistentziak eta eraldaketarekiko interesak gure zentzumen guztiak sartzen ditu tarteko. Gorputzak, paisaia eta kamera elkarrekiko sintonian ageri dira.

Palais (2020) bideoa Bruselako Justizia Jauregian filmatu zen. XIX. mendearen hasierako berealdiko arkitektura horretan ibilbide bat egiten da eraikineko administrazio-instalazio labirintikoetan zehar, eta txandakatu egiten dira hango gela monumentalak, korridore estuak, bulego abandonatuak, horma graffitidunak eta igogailu siniestroak. Ateak zabaldu, paretak ukitu eta botoiak sakatzen dituen esku bati jarraitzen dio kamerak, eta nahasmena eragiten duen giro batean filmatzen ditu espazio desberdinak. Izan ere, kameraren mugimenduak emozio nahasiak iradokitzen ditu: larritasuna, jakin-mina eta baita umore bihurria ere. Ibilbide isil bat da, eta bertan hartzen dute protagonismoa giroan sumatzen diren soinuek, artistaren pausoek, zabaltzen diren ateak, igogailuaren mekanismo ia erasokorrak edo urrunean entzuten diren ahotsen murmurio kezkagarriak.

Instalazioko hirugarren obra, *Justine* (2020), diapasoi bat da airean bibratzen, ia sumatuko ez badugu ere. Diapasoia metalezko objektu bat da, urkila-formakoa, eta tradizioz musika-instrumentuak afinatzeko erabili izan da. Kasu honetan, bere funtzio estandarra aldarazita fabrikatu da pieza, berariaz eta doi-doi erreproduzitzeko artistak ezagutzen duen pertsona baten ahots-tonua. Pertsona horren izena, obrari izenburua ematen diona, Justine da.

Alex Reynoldsen lanak bereizgarri ditu, batetik, hizkuntza zinematografikoa manipulatzeko duen asmo handiko modua eta, bestetik, haren funtsezko elementuen arteko erlazioak arakatzeko interesa. Elementu horiek soinua, erritmoa, antzezpena eta narrazioa dira, baita ikuslearen rola ere. Zinea baliatuta, artista jolastu egiten da, eta eraldatu egiten ditu kontakizun bisualetan nagusi izan ohi diren egiturak eta konbentzioak, gure pertzepzioei desafio eginez pantailaren perimetrotik eta irudien mundutik haratago.

Alex Reynolds. Biografia

Alex Reynolds (1978, Bilbao) Brusela eta Berlin artean bizi da, eta bietan egiten du lan. Performancearen eta zinearen erregistro ugari konbinatuz garatzen du bere obra, baita instalazioen, testuen, argazkien eta pieza kontzeptualen bidez ere. Bere filmek uztartu egiten dituzte kode zinematografikoen azterketa eta zinema narratiboaren birdefinizioa. Bi ikuspegi horiek bat egiten dute bere lanean, eta horrek aukera ematen dio artistari konbentzio zinematografikoak material gisa erabiltzeko pertsonen arteko harremanak ikertzeko asmoz.

2013an Akademie Schloss Solitude-ren beka bat lortu zuen Reynoldsek; horrez gain, Botín Fundazioaren Arte Plastikoetako Beka eskuratu zuen 2016an, baita "la Caixa" Fundazioaren Produkzio Deialdikoa ere, 2020an. Orain irakasle gonbidatua da Ganteko KASK eskolan, eta Acoustics/Communities in Movement gizarte-ikerketa taldeko kidea. Bere obra leku hauetan egon da ikusgai: Index Foundation (Stockholm), Hollybush Gardens (Londres), Centre d'Art la Panera (Lleida), FRAC Lorraine (Metz), Museum M (Lovaina), Galería Marta Cervera (Madril), Tabakalera (Donostia), CA2M (Madril), Syndicate (Kolonia), Bonniers Konsthall (Stockholm), Fundació Joan Miró (Bartzelona), besteak beste. Bere filmak, besteren artean, zine-areto eta zinemaldietan proiektatu dira, besteren artean, hauetan: FIDMarseille, Rencontres Internationales, Aesthetica Film Festival (York, Erresuma Batua) eta Cinematek (Brusela).

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazio bat da, eta, bertan, Guggenheim museoetako nahiz nazioarteko beste erakunde batzuetako obrak biltzen dira. 2014an zabaldu zenetik, Film & Video aretoak artista berezi ugariren sorkuntza-lanak izan ditu ikusgai; besteak beste, hauenak: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, Jesper Just, Jesse Jones eta William Kentridge.

GUGGENHEIM BILBAO

Hezkuntza-jarduerak: Artistekin solasean: Alex Reynolds (otsailak 18)
Alex Reynolds eta Manuel Cirauqui, Guggenheim Bilbao Museoko Film & Video aretoko komisarioa, artistaren sortze-prozesuaz eta ibilbide profesionalaz arituko dira otsailaren 18an, 18:00etan, Entzungelan. Hizpide izango dituzte *Bada lege bat, esku bat, abesti bat* erakusketa eta, bereziki, Reynoldsen azken lana, *Eskua kantari* izenekoa, zeina erakusketaren baitan aurkeztuko den lehen aldiz.

Azaleko irudia:
Alex Reynolds eta Alma Södeberg
Eskua kantari (*La mano que canta)*, 2021
Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 22 min
Eskaintza: artistak eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds eta Alma Södeberg

Argibideak:
Guggenheim Bilbao Museoa
Marketin eta Komunikazio Arloa
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsa irudiak:
Alex Reynolds. Bada lege bat, esku bat, abesti bat
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua
Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Alex Reynolds eta Alma Söderberg
Eskua kantari (*La mano que canta)*, 2021
Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 22 min
Eskaintza: artistak eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds eta Alma Södeberg

Alex Reynolds eta Alma Söderberg
Eskua kantari (*La mano que canta)*, 2021
Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 22 min
Eskaintza: artistak eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds eta Alma Södeberg

Alex Reynolds eta Alma Söderberg
Eskua kantari (*La mano que canta)*, 2021
Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 22 min
Eskaintza: artistak eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds eta Alma Södeberg

Alex Reynolds
Palais, 2020
Bereizmen handiko bideoa koloretan, soinuduna, 34 min
Eskaintza: artista eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds

Alex Reynolds
Justine, 2021
Diapasoi egokitua, elektronika, altzairua eta zura, neurri aldakorrak
Eskaintza: artista eta Galería Marta Cervera, Madril
© Alex Reynolds